



# INGURUMEN-IKUSKAPENEN JARDUEREN MEMORIA

## URTEA: 2019

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza  
Administrazio-unitatea: Ingurumen-ikuskapena

### Aurkibidea

1. Sarrera .....	2
2. Proiektuen zerrenda .....	2
2.1. Proiektua: IPPC jardueren 2019ko jarraipen-ikuskapena .....	2
2.2.- Proiektua: IPPC ez diren jardueren 2019ko ikuskapena .....	7
2.3.- Proiektua: ILEen ikuskapena .....	8
2.4.- Proiektua: Ingurumen-erantzukizuna .....	9
2.5.- Proiektua: Hondakinen lekualdaketa .....	10
2.6.- Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea, IPPC instalazioetan .....	11
2.7.- Proiektua: Industriaguneen jarraipena .....	11
2.8.- Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa .....	12
2.9.- Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa .....	12
3. Emaizak .....	15
4. Ondorioak .....	16



## 1. Sarrera

Memoria honek azaltzen ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Ikuskaritza Zerbitzuak 2019ko ekitaldirako zehaztutako ikuskaritza-programari lotuta egindako jarduketak.

## 2. Proiektuen zerrenda

Jarraian jasotzen dira 2019ko ekitaldian gauzatutako ikuskapen-proiektuen zerrenda, horietako bakoitzaren jarduerak eta emaitzak, eta emaitza horiek aztertzetik ateratako ondorio nagusiak.

### 2.1. Proiektua: IPPC jardueren 2019ko jarraipen-ikuskapena

Erreferentzia: 2019-01

#### 2.1.1.- Jarduketak

407 ikuskapen egin dira, eta horietatik 147 enpresetan egin dira; hau da, aurrez aurrekoak izan dira, eta 260 dokumentu bidezkoak izan dira, ingurumen-zaintzarako planak eta ingurumen-organoak egindako errekerimenduei, halakorik egon bada, emandako erantzunak egiaztatze aldera. Aurrez aurreko ikuskapenei dagokionez, 131 jarraipen-ikuskapenak izan dira (programatutakoak) eta gainerako 16ak ez programatutako ikuskapenak izan dira.

Ikuskapenari zegozkion aktak egin dira, eta horiekin lotutako txostenak bidali zaizkie enpresei, baita, beharrezkoa zen kasuetan, errekerimenduak ere.

Era berean, Sailaren webgunean argitaratu dira aurrez aurre egindako programatutako ikuskapenei dagozkien txostenak.

#### 2.1.2.- Ondorioak

Ondorio nagusia da *in situ* ikuskapenen programazioa bete egin dela neurri handia batean, programatuta egon diren 142 ikuskapenetatik ikuskatu egin baitira 131 instalazio.

Programatutako ikuskapenak egin ondoren, ikusi da betetze-maila altua edo ertain-altua duten enpresen kopurua 2108an lortutakoaren antzekoa dela; 95 enpresek lortu dute maila hori. 24 enpresak dute betetze-maila ertaina eta 12 enpresa sailkatu dira betetze-maila ertain-baxuarekin.

Proiektu honi dagokionez, gogorarazi behar da IPPC instalazioen ikuskapena kutsaduraren




prebentzio eta kontrol integratuen araudian erregulatzeko delakoa. Araudi horretan, era berean, ikuskaritasun-aldizkakotasuna ere ezartzen da, jardura bakoitzarekin loturiko ingurumen-arriskuaren arabera. Ondorioz, proiektu hau urtero jaso behar da dagokion programan.

Jarraian, 1. taulan eta 1. irudian, proiektuaren datu orokorrak adierazten dira. Hain zuzen ere, egin diren programaturako ikuskaritasunen ondoren ingurumen-baimen integratuetako baldintzak betetzeari dagozkion ondorioak adierazten dira.

ENPRESAK, GUZTIRA	EZ-BETETZERIK GABE	EZ-BETETZEKIN
131	34	97

1. taula. Ez-betetzeak dituzten eta ez dituzten instalazioen kopurua



1. irudia. Ez-betetzeak dituzten eta ez dituzten ikuskaritako enpresen banaketa




2. taulan eta 2. irudian, antzeman diren ez-betetzeen kopurua agertzen da, egin diren programatutako ikuskapenen ondoren, zehaztutako ez-betetzearen larritasunaren arabera.

EZ-BETETZEAK, GUZTIRA	Garrantzi gutxiko ez-betetzeak	Neurrizko ez-betetzeak	Ez-betetze esanguratsuak	Ez-betetze larriak
389	356	31	2	0

2. taula. Ez-betetzeen kopurua, larritasunaren arabera sailkatuta

#### MOTA BAKOITZEKO EZ-BETETZEEN KOP.




2. irudia. Ez-betetzeen banaketa, larritasunaren arabera

#### ARRISKU-INDIZEA (AI)

3. taulan eta 3. irudian, enpresen kopurua adierazten da, arrisku motaren arabera: gutxieneko arrisku-indizea AI=1 da, eta, gehienekoa, AI=5.

TOTAL	AI 1	AI 2	AI 3	AI 4	AI 5
131	13	43	57	16	2

3. taula. Enpresen kopurua, arrisku motaren arabera, egin diren programatutako ikuskapenaren ondoren




3. irudia. Instalazioen banaketa, arrisku motaren arabera.

**ARRISKU-KATEGORIA (AK)**

4. taulan eta 4. irudian, enpresen kopurua adierazten da, arrisku-kategoriaren arabera. Aipatu beharra dago ikuskapen-aldizkakotasuna egindako azken ikuskapenaren osteko arriskuaren arabera ezartzen dela: AK=1, urtean behingo aldizkakotasuna; AK=2, bi urtean behingo aldizkakotasuna; eta AK=3, hiru urtean behingo aldizkakotasuna.

GUZTIRA	AK 1	AK 2	AK 3
131	18	52	61

4. taula. Enpresen kopurua, arrisku-kategoriaren arabera



4. irudia. Instalazioen banaketa, arrisku-kategoriaren arabera




## BETETZE-MAILA

5. taulan eta 5. irudian, ikuskatutako ikuskapenen betetze-maila adierazten da.

GUZTIRA	ALTUA	ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA	BAXUA
131	69	26	24	5	7

5. taula. Enpresen kopurua, betetze-mailaren arabera



5. irudia. Instalazioen banaketa, betetze-mailaren arabera



## **2.2.- Proiektua: IPPC ez diren jardueren 2019ko ikuskapena**

Erreferentzia: 2019-02

### **2.2.1.- Jarduketak**

IPPC ez diren jarduerak hala Ikuskapen Zerbitzuko langileek nola kontratatutako Ingurumen Lankidetzarako Erakundeek (ILE) ikuskatu dituzte, ingurumen-organoak emandako oharpenen arabera. 2019an, 273 ikuskapen egin dituzte ILEek eta 8 ikuskapen Ikuskapen Zerbitzuak.

Era berean, aplikatu behar den legeriarekiko desbiderapenak dituzten enpresei dagokien errekerimendua bidali zaie.

Halaber, aurreko urtean egindako ikuskapenen segimendua egin da, enpresen betetze-maila kontrolatu eta gainbegiratzeko xedearekin.

### **2.2.2.- Ondorioak**


2018ko proiektua 2019ko apirilean amaitu zen, 2018an Sektore Publikoko Kontratuen Legea sartu baitzen indarrean eta haren aplikazioa praktikoak, organo eskudunaren indikazioen zain, atzerapenak ekarri zituen kontratazioetan. Horrela, 91 ikuskapen egin ziren urtarrila eta apirila bitartean.

2019ko proiektua apirilean hasi zen, eta 182 ikuskapen egin ziren abendura bitartean. 2019an, IPPC ez diren 254 enpresa ikuskatzea zegoen aurreikusita, beraz, kopurua handiagoa izan da, guztira 273 ikuskapen egin baitituzte asistentzia teknikoek 2018an egin gabe geratu zirenak konpentsatzeko.

2019an egin diren ikuskapenen emaitzak aztertuta, nabarmentzekoa da bisitatutako instalazioen %53ean betetze-maila altua edo ertain-altua dela, instalazioen %25ean betetze-maila ertaina dela eta instalazioen %22an ertain-baxua edo baxua dela. Betetze-maila, 2018an lortutakoa baino zertxobait altuagoa da (Ikus 6. irudia).



## BETETZE MAILA



6. irudia. Betetze-mailaren ebaluazioa

### 2.3.- Proiektua: ILEen ikuskapena

Erreferentzia: 2019-03

#### 2.3.1.- Jarduketak

Aurreko urteetako ikuskapenetan, kontrolatu egin genituen EAEko atmosferaren esparruan jarduten duten Ingurumen Lankidetzarako Erakundeak, eta, aurten, horien ikuskapenak egiten jarraitu dugu. Guztira, hiru ikuskapen egin ditugu.

Era berean, ILEek ikuskatutako kutsatzaileak kontrolatzen laguntzeko dokumentazioa prestatzen jarraitu dugu.

#### 2.3.2.- Ondorioak

Bete egin da hiru ikuskapen egitearen helburua. Azpimarratu beharra dago ikuskapenen emaitzak onak izan direla; izan ere, ILEei jakinarazi zaie administrazioak beraien jarduera gainbegiratzen duela, eta egiaztatu da araudia betetzen dela, fokuen neurketari dagokionez.





## **2.4.- Proiektua: Ingurumen-erantzukizuna**

Erreferentzia: 2019-04

### **2.4.1.- Jarduketak**

2017ko urriaren 30ean, urriaren 23ko APM/1040/2017 Agindua argitaratu zen, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipatutako agindu horren eranskina aldatzen duena –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehentasun-mailakotzat sailkatuta–.

Aginduan jasotzen den bezala, 1. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak aurrera eramane nahi dituzten jarduerari atzekien ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermea eduki behar dute, urtebeteko epean APM/1040/2017 Agindua indarrean sartzen denetik, hots, 2018ko urriaren 31tik. Bestalde, 2. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak finantza-berme hori eduki beharko dute bi urteko epean; hau da, 2019ko urriaren 31rako.

2019ko ekitaldian zehar, finantza-bermea jarri behar duten operadoreei beharrezko informazioa eta tresnak eman zaizkie, 26/2007 Legetik eta 2017ko urriaren 23ko APM/1040/2017 Agindutik eratorritako betebeharra bete dezaten. 2019. urteko azken hiruhilekoan zehar, 2. lehentasun-mailako enpresek prestatutako erantzukizunpeko adierazpenak jaso dira. Hori horrela, Ingurumen Sailburuordetzak hemen azaldutakoari dagokion izapide telematikoa gaitu du.

### **2.4.2.- Ondorioak**

Programatutakoa bete da, finantza-bermea jarri behar duten operadoreei beharrezko informazioa eta tresnak eman zaizkie eta.

Jarraian, 6. eta 7. tauletan, erantzukizunpeko adierazpenaren 1. motako eta 2. motako operadoreek egin beharreko izapideari buruzko datuak aurkezten dira (2020ko urtarrilaren 8ra bitartekoak).



1. lehentasun-mailako enpresen egoera 2020/01/08ra bitartean (EAren nahitaezko data: 2018/10/31)			
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Guztira
IPPC	12	0	12
IPPC eta SEVESO	23	0	23
SEVESO	23	0	23
<b>GUZTIRA</b>	<b>58 (% 100)</b>	<b>0 (% 0)</b>	<b>58 (% 100)</b>

6. taula. 1. lehentasun-mailako operadoreekin lotutako datuak.

2. lehentasun-mailako enpresen egoera 2020/01/08ra bitartean (EAren nahitaezko data: 2019/10/31)				
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Finantza-bermea jarri beharrik ez	Guztira
IPPC	52 (% 61,9)	25 (% 29,8)	7 (% 8,3)	84

7. taula. 2. lehentasun-mailako operadoreekin lotutako datuak.

Memoria hau prestatu denean legezko betebeharra bete ez duten 2. lehentasun-mailako operadoreen kasuan, hainbat jarduera egiten ari dira betebeharrak hori beteko dela bermatzeko.

## 2.5.- Proiektua: Hondakinen lekualdaketa

Erreferentzia: 2019-05

### 2.5.1.- Jarduketak

2019ko ekitaldian, EAeko zenbait operadorek egindako hondakin-garraioen 19 ikuskapen espezifiko egin dira, 11 ikuskapen Bilboko portuan eta 7 ikuskapen hondakinen lekualdatzeari errepideetan. Hondakinak lekuz aldatzen dituzten operadoreei buruzko informazioa eguneratzen jarraitu dugu.

Mugaz gaindiko hondakin-garraiolariei, indarreko legeditik eratorritako betekizunak jakinarazten jarraitu dugu.

### 2.5.2.- Ondorioak

Programazioaren % 100 bete da; izan ere, operadoreei nahiz iragaitzazko hondakinei dagokienez programatutako ikuskapen guztiak egin dira.



## ***2.6.- Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea, IPPC instalazioetan***

Erreferentzia: 2019-06

### **2.6.1.- Jarduketak**

Proiektu bat dago bi helburu dituena; batetik operadore bakoitzak bere baimenetan dituzten baldintzen betetze-maila egiaztatzen jarraitzea eta antzemandako desbideraketen %60 zuzentzea, eta, bestetik, barne-prozedurak bideratzea. Bada proiektu horrek, markatutako helburuak lortzeko jarraitu beharreko estrategiaren definizioa jaso du. Ingurumen Sailburuordetzako administrazio-unitate desberdinen artean talde bat sortu da proiektua kudeatzeko, eta besteak beste, barne-prozedurak bideratuko ditu proiektua denboran zehar behar bezala betetzen dela ziurtatzeko.

### **2.6.2.- Ondorioak**

Aurkeztutako programazioa ez da bete; izan ere, enpresen betetze-maila egiaztatzen jarraitzeko helburuak (IPPC proiektuaren barruan ikuskatutako operadoreen IENS baldintzak, zehazki) eta barne-prozedurak bideratzeko helburuak arrakastaz bete badira ere, 2019an ez da erabat gauzatu INSJ duten operadore guztien azterketa zehatza. Adierazitako jarduketekin jarraitzeko beharra ikusten da.

## ***2.7.- Proiektua: Industriaguneen jarraipena***

Erreferentzia: 2019-07

### **2.7.1.- Jarduketak**

EAEko industrialdeetan kokatutako enpresek indarreko ingurumen-legedia zein mailatan betetzen duten zehazteko, eta ingurunean duten ingurumen-eragina neurtzeko, 40 zaintza-jarduketa egin dira industrialdeetan, 165 enpresari buruzko informazioa bilduta. Informazio hori 2020ko ekitaldiko ikuskaritza-programazioan sartuko da.

### **2.7.2.- Ondorioak**

Identifikatutako enpresei buruzko informazioa IPPC ez diren ikuskapenen proiektura lekualdatu da. Helburua zen 30 enpresa lortzea ikuskapenen zerrendan sartzeko. Espero zena baino gehiago lortu da, beraz.



## **2.8.- Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa**

Erreferentzia: 2019-08

### **2.8.1.- Jarduketak**

Ingurumen-arriskua duten bertan behera utzitako jardueren inguruan ez da ikuskapenik egin 2019an. Ingurumen-arriskua duten bertan behera utzitako jarduera berrien azken urteotako beherako joera mantendu egiten da.

### **2.8.2.- Ondorioak**

2017a geroztik gutxitzen doa proiektu honetan bildutako jarduera-uzteen espediente-kopurua, eta horregatik ez da jarduera utzi duten enpresen ikuskapenik egin 2019an.

## **2.9.- Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa**

Erreferentzia: 2019-09

### **2.9.1.- Jarduketak**


EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari erantzuna eman zaio urteko 365 egunetan, 24 orduz.

Urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean, 602 abisu kudeatu dira eta haien ondoriozko 73 landa-jarduketa egin dira.

Honela banatzen dira abisuak, lurralde historikoaren arabera:

	<b>ARABA</b>	<b>BIZKAIA</b>	<b>GIPUZKOA</b>
<b>OHARTARAZPEN KOP.</b>	97	400	105

8. taula. Abisu kopurua, lurraldearen arabera.




**7. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen arabera.**

Eragindako ingurunearen araberako banaketa 9. taulan eta 9. irudian adierazten da.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
<b>AIREA</b>	38	254	59
<b>NATURA-INGURUNEA</b>	6	78	11
<b>LURZORUA</b>	44	34	14
<b>URA</b>	9	34	21

**9. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta eragindako ingurunearen arabera**




**8. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen eta eragindako ingurunearen arabera**

Ingurumen-efektuaren arabera banaketa 10. taulan eta 9. irudian adierazten da.

	Errepideko istripua	Airera eginiko igorpenak	Sutea	Usainak	Hondakin arriskutsuak	Zarata	Lurzorua	Uretarako isuria	Beste batzuk
ARABA	2	22	3	15	17	2	16	9	11
BIZKAIA	10	66	16	168	12	22	28	37	41
GIPUZKOA	1	40	4	15	4	4	12	21	4

10. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera



9. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera

### 2.9.2.- Ondorioak

EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari erantzuteko helburua bete da, 24 orduz.

Ohikotzat jotzen dira Araban eta Gipuzkoan egindako abisuen kopurua eta ezaugarriak. Aipatzekoa da Bizkaiko kexa kopuru handi bat aireari, zehazki usainei eta airerako isurketei dagozkiela. Egindako analisiaren ondoren, egiaztatu zen otsailaren 6an Petronorren, Muskizko findegian, mantentze-lanei lotutako arazoak zirela-eta izandako gertakari baten ondorioz, 113 kexa jaso zirela egun batean.

IPPCren jarraipen-ikuskapeneko proiektuen barruan, jarraipen berezia egiten jarraituko da potentzialki abisu eta kexa gehiago sor ditzaketen enpresei.



### 3. Emaitzak

#### Proiektuak

Proiekt. erref.:	Programatutako jarduerak	Eginda (%)
2019-01	142	% 92,25
2019-02	254	% 100
2019-03	3	% 100
2019-04	Kualitatiboak	% 100
2019-05	19	% 100
2019-06	Kualitatiboak	% 100
2019-07	Kualitatiboak	% 100
2019-08	Kualitatiboak	% 100
2019-09	Ez da aplikatzen	Kualitatiboak

11. taula. Ikuskapen-proiektuen betetze-mailaren laburpena.  
2019an gauzatuak

#### Proiektu eta ikuskapen guztiak

Proiektuaren erref.	Ikuskatutako jarduera kop.	Egindako ikuskapen kop.
2019-01	147	407
2019-02	281	281
2019-03	3	3
2019-04	0	142
2019-05	37	37
2019-06	0	0
2019-07	40	40
2019-08	0	0
2019-09	0	73
Guztira	506	981

12. taula. Ikuskatutako jardueren eta egindako ikuskapenen laburpena



#### **4. Ondorioak**

2019ko Ikuskapen eta Ingurumen Kontroleko Programan ezarritako programazio ia osoa bete da.

Lehentasunezko proiektua IPPC instalazioen jarraipena izan da, berriz ere, eta gainerako proiektuak ikuskapen-unitatean eskuragarri zeuden baliabideen arabera gauzatu dira.

Nabarmendu behar da ia proiektu guztietan etengabeko hobekuntza ikusi dela, enpresen betetze-maila igo eta enpresa kritikoen arriskuak murriztu egin baitira, ingurumen-kudeaketa hobetzearen eta ez-betetzeak murriztu izanaren ondorioz.